



ARAMAKO UDALA

(GIPUZKOA)

SOINKETA ARETOA ERABILTZEKO ARAUAK

ORDUTEGIA: Soinketa aretoa zabalik egongo da 8:00etatik 21:30etara egunero.

a) Soinketa gunean sartu ahal izateko, 16 urte baino gehiago izan beharko da, beti ere, kasu berezietan salbuespenak egiteko aukera izango duelarik udalak. Hala nola, kirolari gazteak...

b) Soinketa gunean sartu ahal izateko, txartelaren jabe izan beharko da eta sarreran dagoen txartel-irakurgailutik pasa behar da txartela.

c) Gelako materiala erabiltzaileen erabilgarri egongo da; beraiei dagokie behar bezala erabiltzea. Zabarkeriagatik nahiz erabilera okerragatik materialari eragindako kalteak erabiltzaileek ordaindu beharko ditu.

d) Erabilitako materiala bere lekuan utzi behar da.

e) Derrigorrezkoa da eskuoihala erabiltzea makina guztietan, higiene-arrazoiak tarteko. Era berean, makinak erabili ondoren, makinetan utzitako izerdia lehortu beharko da, (horretarako parera erabiliz eta ez eskuoihala).

f) Kirol-oinetako egokiak erabili beharko dira.

g) Erabiltzaileak, beste inor zai balego, 30 minutu ondoren erabiltzen ari den makina uzteko beharra izango du.

h) Debehatuta dago gelara motxilak, kristalezko botilak eta janaria sartzea.

i) Makinak ezin dira bere lekutik mugitu.

j) Edozein jarduera fisiko hasi aurretik, gomendagarria da hasierako mediku-azterketa egitea. instalazioak ez du bere gain hartuko kirol-jardueren erantzukizunik.

k) Instalazio hauek erabiltzeko, mantenuko kuota bat ezarriko da, berau, urtean 60 €koa izango delarik.

l) Jarduera fisikoa egin ondoren, erabilitako instalazioen fitxa bete beharko da.

m) Soinketa gunean, taldekako ekintzak antolatu daitezke, hala nola ikastaroak etab.... Taldekako ekintzek lehentasuna izango dute norbanako ekintzen aurrean.